## UDAL OSOKO BILKURA / SESION PLENARIA MUNICIPAL

## 2016ko IRAILAK 27 / 27 - SEPTIEMBRE - 2016

**TOKIA / LUGAR:** UDALETXEKO BATZAR ARETOA
SALA CAPITULAR DE LA CASA CONSISTORIAL DE DURANGO

**EGUNA / FECHA:** 2016/09/28

**HASIERA / INICIO:** 17:00etan

**BERTARATUAK / ASISTENTES:**

**PRESIDENTEA / PRESIDENTA (EAJ-PNV):**
Alkate andrea, Doña Aitziber Irigoras Alberdi

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (EAJ-PNV):**
2. Alkateordea, Doña Maria José Balier Orobio-Urrutia andrea
3. Alkateordea, Don Iker Oceja Sobrón jauna
4. Alkateordea, Doña Goiztidi Díaz Basterra andrea
5. Alkateordea, Don Humberto Jaio Sagasti jauna
6. Alkateordea, Don Jose Maria Andres Ibañez de Garaio jauna
Doña Olaia Albizu Gallastegi andrea
Don Harri Guridi Ordeñana jauna

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (EH BILDU)**
Don Daniel Maeztu Perez jauna
Doña Eider Uribe Padilla andrea
Don Jon Andoni del Amo Castro jauna
Doña Rosa Maria Mintegi Egileor andrea
Don Jon Bingen Oier Landabidea Aranburu jauna
Don Aritz Bravo Zubillaga jauna
Don Iker Urkiza Quilez jauna

**HERRIAREN ESKUBIDEA (SQ-2D)**
Don Julian Rios Santiago jauna
Doña Maria Juliana Perera Figueredo andrea
Don Jorge Varela Dorrio jauna

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (PSOE) (PSE-EE (PSOE))**
1. Alkateordea, Doña Pilar Ríos Ramos andrea
Don Mauricio Garcia Martin jauna

**ZINEGOTZIA / CONCEJAL (PP)**
Don Francisco Garate Mintegui jauna

**KONTU-HARTZAILE ORDEA / INTERVENTORA EN FUNCIONES**
Doña Maria Pilar Velasco Pérez andrea

**IDAZKARI OROKORRA / SECRETARIO GENERAL**
Don Ramón Sorarrain Tolosa jauna

Alkate andreak batzarrari hasiera eman ondoren, 17:00ak direnean, bilera honetako gai-zerrenda osatzen duten asuntoak eztabaidatzeari ekin zaio. Gaiak ondorengo hauek dira:

Abierta la sesión por la Alcaldesa-Presidenta, siendo las 17:00 horas, se pasó a tratar los temas que componen el Orden del Día de la presente sesión y que son los siguientes:

**BAT.- BIDEZKOA BALITZ, AURREKO AKTAREN ZIRRIBORROAREN IRAKURKETA ETA ONARPENA, 2016KO MAIATZAREN 10EKO ETA 2016KO ABUZTUAREN 29KO EZ OHIKOAK, ETA 2016KO MAIATZAREN 31KO OHIKOA.**

IRAKURRI OSTEAN aurreko batzarreko akta-zirriborroak, 2016ko maiatzaren 10eko eta 2016ko abuztuaren 29ko ez ohikoak, eta 2016ko maiatzaren 31ko ohikoa hain zuzen ere.

BOZKETA egin ostean, Udaleko Osoko Bilkurak, aho batez, **ONARTU EGITEN DU 2016ko maiatzaren 10eko** eta **maiatzaren 31ko** Osoko Bilkuraren ez ohiko aktak; eta gehiengoaren botoarekin, (EAJ/PNV) Irigoras Alberdi Alkatesa andrea, (EAJ//PNV) Jaio Sagasti jauna, (EH Bildu) Maeztu Perez jauna, (EH Bildu) Del Amo Castro jauna, (EH Bildu) Mintegi Egileor andrea, (EH Bildu) Urkiza Quilez jauna, (Herriaren Eskubidea) Perera Figueredo andrea eta PSE-EE (PSOE) Garcia Martin jauna jauna abstentzionarekin, **ONARTU EGITEN DU 2016ko abuztuaren 29ko** Osoko Bilkuraren ez ohiko akta.

**UNO.- LECTURA Y APROBACIÓN, SI PROCEDE, DE LOS BORRADORES DE LAS ACTAS DE LAS SESIONES CORRESPONDIENTES A LAS EXTRAORDINARIAS DE 10 DE MAYO Y 29 DE AGOSTO, Y A LA ORDINARIA DE 31 DE MAYO, TODAS ELLAS DE 2016.**

DADA LECTURA a los borradores de las Actas de las sesiones anteriores, correspondientes a las Extraordinarias de 10 de Mayo y 29 de Agosto, y Ordinaria de 31 de Mayo, todas ellas de 2016.

PREVIA votación realizada al efecto, el Ayuntamiento Pleno, por unanimidad, **APRUEBA** las Actas de los Plenos: Extraordinario de **10 de Mayo** y Ordinario de **31 de Mayo, ambos de 2016;** y, por mayoría, y con la abstención de la Alcaldesa, Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV) y de los/as Concejales/as Sr. Jaio Sagasti (EAJ/PNV), Sr. Maeztu Perez (EH Bildu), Sr. Del Amo Castro (EH Bildu), Sra. Mintegi Egileor (EH Bildu), Sr. Urkiza Quilez (EH Bildu), Sra. Perera Figueredo (Herriaren Eskubidea) y Sr. Garcia Martin PSE-EE (PSOE) dada su inasistencia a la misma, **APRUEBA** el Acta del Pleno Extraordinario de **29 de Agosto de 2016.**

**BI.- INTERESDUN GAIEN BERRI EMATEA:**

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: Zuen mahai gainean dago aurreko hauteskundeetako emaitzen txosten txikia. Nahi duenak aukera dauka emailez ere jasotzeko.

Adierazi behar dut baita ere hainbat aldiz eskatu izan dela pleno areto honetan .eus dominioarena; bada, martxan dago. Eta onarturiko azken aurrekontuak ere eskegita daude web orrialdean.

**DOS.- DACIÓN DE CUENTA DE ASUNTOS DE INTERÉS:**

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: El breve informe elaborado sobre las anteriores elecciones está sobre las mesas. Quien quiera también puede recibirlo por correo electrónico.

También quiero manifestar que en este salón de plenos se ha mencionado en varias ocasiones el tema del dominio .eus, y ya está en marcha. Los últimos presupuestos aprobados también están en la página web.

Gainerako kontuetan badakizue dekretu guztiak ikusgai daudela, gaur goizean bertan egin dut konprobazioa eta ondo daude.

Udalbatza jakitun eta ados adierazten da.

Respecto al resto de temas, todos los decretos están disponibles; lo he comprobado esta misma mañana y todo está en orden.

El Ayuntamiento Pleno se da por enterado.

**HIRU.- ADIN NAGUSIKOEN JANGELA-ZERBITZUAREN PREZIO PUBLIKOA ONARTZEKO PROPOSAMENA. (GIZARTE EKINTZA ETA ENPLEGU BATZORDEAREN IRIZPENA DUENA 2016KO IRAILAREN 20KOA).**

IRAKURRI OSTEAN Gizarte Ekintza eta Enplegu Batzordearen irizpena, 2016ko irailaren 20koa, eta honako hau dioena:

"*PERTSONA NAGUSIENTZAKO JANTOKI ZERBITZUA*

*Gai hau arinago ere landu da batzordean.*

*Pertsona nagusientzako jantoki zerbitzuak honako ezaugarriak ditu:*

***Helburua***

*Zerbitzu honen bidez, pertsona nagusiei euren beharretara egokitutako jatordu orekatuak eskaini gura dizkiegu, harreman sozialetarako eta elkarbizitzarako gune egoki baten. Modu autonomoan jan dezaketen pertsonentzako zerbitzua da.*

***Pertsona onuradunak***

- *Durangon bizi diren 75 urte baino gehiagoko pertsonak, senar-emazteak edo bikoteak.*
- *Durangon bizi diren 65 urte baino gehiagoko pertsonak, zailtasun egoeran daudenak: jatorduen gestiorako zailtasunak, arazo ekonomikoak, babes sozial falta, bakardadea…*

**TRES.- PROPUESTA DE APROBACIÓN DEL PRECIO PÚBLICO DEL SERVICIO DE COMEDOR PARA PERSONAS MAYORES. (DICTAMINADO POR LA COMISIÓN INFORMATIVA DE ACCIÓN SOCIAL Y EMPLEO DE 20 DE SETIEMBRE DE 2016).**

DADA LECTURA al dictamen emitido por la Comisión Informativa de Acción Social y Empleo en sesión de 20 de Setiembre de 2016, del tenor literal siguiente:

"*SERVICIO DE COMEDOR PARA PERSONAS MAYORES.*

*Este tema ha sido estudiado en anteriores comisiones.*

*El servicio de comedor para personas mayores presenta las siguientes características:*

***Objetivo***

*Este servicio pretende proporcionar comidas equilibradas y adecuadas a las necesidades nutricionales de las personas mayores en un entorno que favorece las relaciones sociales y la convivencia. Está dirigido a personas mayores que conservan sus capacidades para poder comer de manera autónoma.*

***Personas beneficiarias***

- *Mayores de 75 años residentes en el municipio de Durango, cónyuges o relación de análoga naturaleza.*
- *Mayores de 65 años residentes en el municipio de Durango que se encuentren en situación de vulnerabilidad, tengan dificultades para la gestión de la comida, presenten señales de aislamiento social, falta de apoyo social o dificultades económicas.*

***Prezioa***

*Pentsioaren arabera ezarriko da. Ordaindu beharreko kopurua zehazteko, pentsioaren 12 ordainketak hartuko dira kontuan.*

| ***Familia unitatea Pertsona 1*** | ***Familia unitatea 2 pertsona Bikotea / senar-emazteak*** | ***MENUAREN PREZIOA*** |
|---|---|---|
| *800 euro baino gutxiago* | *1.300 euro baino gutxiago* | ***3.50 €*** |
| *800 euro baino gehiago* | *1.300 euro baino gehiago* | ***6 €*** |

***BIKOTEKO KIDE BIAK JANTOKIRA JOANEZ GERO, DESKONTUA:***

- *Pentsio bidezko diru-sarrerak 1.300 euro baino baxuagoak badira:* ***6 euro*** *bakoitzak.*
- *Pentsio bidezko diru-sarrerak 1.300 euro baino altuagoak badira:* ***10 euro*** *bakoitzak.*

***Zerbitzuaren ordutegia***

*Durangoko Udalak ezarriko du jantoki zerbitzuaren ordutegia. Aldaketak egin ahalko ditu, antolaketa edo zerbitzu arrazoiak tarteko.*

*Hau izango da zerbitzuaren ordutegia:*

***Astelehenetik barikura.***

***Ordutegia****: 13:00etik 14:30era.*

***Abuztuan*** *zarratuta egongo da.*

*Jantokian bi txanda egongo dira:*

*1.txanda: 13.00ean.*
*2.txanda: 13.45ean.*

*Egunero gehienez 50 pertsonek bazkaldu ahalko dute (bi txanden artean).*

***Jatordu motak***

*Egunero menu bat egongo da, eta zerbitzuko erabiltzaileek menuko hainbat aukeren artean aukeratu ahalko dute. Menu bereziak ere egongo dira,*

***Precio***

*Se fijará en función de la pensión. Para determinar la cuantía a abonar se tendrá en cuenta las 12 pagas de la pensión.*

| ***Unidad familiar 1 persona*** | ***Unidad familiar 2 personas pareja-matrimonio*** | ***PRECIO MENU*** |
|---|---|---|
| *Menos de 800 euros* | *Menos de 1300 euros* | ***3.50 €*** |
| *Más de 800 euros* | *Más de 1300 euros* | ***6 €*** |

***DESCUENTO POR MATRIMONIO O PAREJAS SI AMBOS ACUDEN AL COMEDOR:***

- *Si los ingresos globales por pensión son menores a 1300 euros:* ***6 euros*** *ambos.*
- *Si los ingresos globales por pensión son mayores a 1300 euros:* ***10 euros*** *ambos.*

***Horario y días de funcionamiento***

*Los días y horas de funcionamiento del servicio de comedor serán establecidos por el Ayuntamiento de Durango, pudiendo ser modificados cuando sea necesario por razones de organización y/o servicio.*

*Los horarios y días de servicio serán:*

***De Lunes a Viernes.***

***Horario****: 13:00 a 14:30h.*

*El mes de a**gosto** permanecerá cerrado.*

*El acceso al comedor se establece en dos turnos:*

*1er turno: 13.00 horas.*
*2º turno: 13.45 horas.*

*El número máximo de comensales es de 50 (entre ambos turnos).*

***Tipo de comidas***

*Cada día se servirá un menú para las y los usuarios del servicio, pudiendo elegir menú*

*esaterako, diabetesa edo alergiak dituzten pertsonentzat. Menuko plateren berri egun batzuk arinago emango da Adinekoen Udal Egoitzako kafetegian.*

***Erabilera arauak***

*Jantokian jan ahal izateko, beharrezkoa da:*

1. *Jantokiko erabiltzaileen txartela lortzea.*
2. *Plaza erreserbatzea, gutxienez 2 egun arinago 11:00ak arte (plazak libre badaude). Erreserba hori Adinekoen Udal Egoitzako kafetegian egin beharko da.*
3. ***Erreserba egiterakoan erabiltzaile txartela aurkeztu beharko da.***
4. *Bazkaria ordainduko da jantokia erabiltzeko izena ematerakoan. Jantokiko erabiltzaile txartela erakutsitakoan, bazkari-txartela jasoko du erabiltzaileak, eta txartel hori bazkalorduan erakutsi beharko du.*
5. *Beste pertsona batzuentzat ere erreserbatu daiteke menua. Horretarako, beste pertsona horien erabiltzaile txartela aurkeztu beharko da erreserba egiterakoan.*
6. *Erreserba bi egun arinago bertan behera utziz gero, ordaindutako dirua itzuliko da.*
7. *Zentroko langileek edozein momentutan eskatu ahalko dute erabiltzaile txartela erakusteko, horrela, erreserban esandako pertsonak direla ziurtatzeko.*
8. *Jantokian **menuko edukia** baino ez da zerbitzatuko, eta kafeak, infusioak eta antzerakoak ez dira menu barruan egongo. Horiek kafetegiko barran eskatu ahalko dira, eta bertan ordaindu.*
9. *Jantokitik ezin da janaria atera.*

*Jantokiko erabiltzaile txartela lortzeko, hau egin behar da:*

*entre diferentes opciones. Se establecen también menús especiales (diabéticos, alérgicos..). La composición del menú se anunciará con la suficiente antelación en la cafetería del Centro de Personas Mayores.*

***Normas de utilización***

*Para utilizar el servicio de comedor es necesario:*

1. *Obtener previamente el carnet de usuaria o usuario del comedor.*
2. *Realizar la reserva de la plaza con una **antelación mínima de 2 días** y hasta las **11.00 horas** (siempre que exista disponibilidad de plazas) en la cafetería del centro de personas mayores.*
3. ***Presentar** el **carnet de usuaria o usuario de comedor** al realizar la reserva.*
4. *El precio establecido por persona se abonará en el momento de la inscripción; tras presentar el carnet de usuario de comedor se le entregará un **ticket de reserva** que deberá presentar cuando acceda al servicio de comedor.*
5. *Es posible realizar la reserva de menús para otras personas siempre que se presenten los carnés de todas ellas en el momento de realizar la reserva.*
6. *Se realizará la devolución del importe abonado cuando se anule la reserva con dos días de antelación.*
7. *El personal del centro podrá solicitar en cualquier momento la **acreditación de usuaria o usuario** del servicio, con el fin de comprobar que coincide con la identidad de la reserva.*
8. *Durante el servicio de comedor se servirá exclusivamente el **contenido del menú** correspondiente, no sirviéndose cafés, infusiones etc., que podrán ser solicitados en la barra de la cafetería y abonados en la misma.*
9. *Esta prohibido sacar del comedor los alimentos servidos en la comida.*

*Para obtener el carnet de usuaria o usuario del comedor es necesario:*

- *Eskaera orria bete.*
- *Erroldatze agiria aurkeztu.*
- *Pentsioaren diru kopurua egiaztatzen duen dokumentua aurkeztu.*

*Txartela doakoa da. Eskaera Adinekoen Udal Egoitzan egin beharko da.*

*Batzordekideek dokumentua aztertu eta gero, Rios Ramos andreak saileko Presidenteak bozketa egitea proposatu du, jantoki zerbitzuko Prezio Publikoak onartzeko.*

*Bozkatu ondoren emaitza hau lortu da:*

*Aldeko botoakr: 3, 2 EAJ-PNV, 1 PSE-EE (PSOE).*
*Kontrako botoak: Bat ere ez.*
*Abstenciones: 3, 1EH Bildu, 1 HE-SQ-2D eta 1 PP.*

*Batzorde honek osoko bilkurara bideratuko du pertsona nagusientzako jantoki zerbitzuko prezio publikoak onartzeko proposamena."*

EZTABAIDA-TARTEA ireki ostean, honako parte-hartzeak ematen dira:

* 1. Alkate Ordea **Rios Ramos andreak PSE-EE (PSOE)**: Azaldu beharrekoa da adinekoen jangela-zerbitzurako hemen ekarri dituzten prezioak pentsioaren arabera finkatu direla. Horrenbestez, bi kategoria ditugu: alde batetik, 800 euroko edo gutxiagoko pentsioa kobratzen duten pertsonek menu bakoitzeko 3,50 euroko prezioa ordainduko dute; eta 800 euro baino gehiago kobratzen dutenek 6 euro ordainduko dituzte. 1.300 euro edo gutxiago kobratzen duten bikoteen kasuan, menuagatik 6 euro ordainduko dute eta, gehiago kobratuz gero, menu bakoitzeko 10 euro ordainduko dituzte.

Proiektu honetan lanean ari gara urtearen hasieratik eta helburua urriaren 24an ezagutaraztea da. Zerbitzu horrekin, gobernu-taldearentzat oso garrantzitsua den lehentasunezko gaia errealitate bihurtu dugu; hau da, gero eta helduagoa den eta egoera berezian eta ahulean dagoen biztanleriaren zati bati zerbitzua ematea. Zerbitzu horren bidez, pertsona horien autonomia bultzatu nahi dugu beren autonomia gal ez dezaten eta bere

- *Cumplimentar la hoja de solicitud.*
- *Presentar volante de empadronamiento.*
- *Presentar documento que acredite la cuantía de la pensión.*

*La obtención del carnet es gratuita. La solicitud se realizará en el Centro de Personas Mayores.*

*Tras el estudio por parte de los y las componentes de la comisión, la Presidenta del área Sra. Ríos Ramos eleva a votación la aprobación de los Precios Públicos del Servicio de comedor, tal y como se han expuesto anteriormente.*

*Tras la votación se obtiene el siguiente resultado:*

*Votos a favor: 3, 2 EAJ-PNV, 1 PSE-EE (PSOE)*
*Votos en contra: 0.*
*Abstenciones: 3,1EH Bildu, 1 HE-SQ-2D y 1 PP*

*Esta Comisión eleva al pleno de la Corporación la propuesta de aprobación del Precio Público del servicio de comedor para personas mayores."*

ABIERTO debate, se producen las siguientes intervenciones:

* 1ª Tnte. de Alcalde **Sra. Rios Ramos PSE-EE (PSOE)**: Explicar que los precios que aquí se traen para el servicio de comedor de personas mayores se han fijado en función de la pensión. Por tanto tenemos dos categorías; por un lado, aquellas personas que cobren una pensión de 800 euros o menos pagarán un precio de 3,50 euros por menú y, aquellas que cobren más de 800 euros pagarán 6 euros. En caso de las parejas que cobren 1.300 euros o menos, pagarán por el menú 6 euros, y si cobran más, pagarán 10 euros por menú.

Llevamos trabajando en este proyecto desde inicios de año y la idea es que el 24 de octubre vea la luz. Con este servicio hacemos realidad una prioridad que para el Equipo de Gobierno es muy importante; el dar un servicio a una parte de la población que cada vez es mayor y están en una situación especial y frágil. Con este servicio lo que queremos es favorecer la autonomía de estas personas, que no pierdan su autonomía, que sigan viviendo en sus domici-

etxebizitzen bizitzen jarrai dezaten. Horregatik, zerbitzuak bi helburu betetzen ditu:

- ✓ Alde batetik, adinekoei otordu orekatuak eta bakoitzaren diru-sarreren araberakoa eskaintzea.

- ✓ Bestalde, harreman sozialak eta elkarbizitza ere sustatu nahi ditugu.

Hitz gutxitan esanda, gure helburua adinekoen bizi-kalitatea hobetzea da. Zerbitzua, hasiera batean, 75 urte baino gehiagokoentzat izango da. Funtzionatzen hasten denean, zer aldaketa egin daitekeen ikusi nahi dugu.

* <u>Perera Figueredo andreak (Herriaren Eskubidea)</u>: Adin-talde horrentzako proiektu egokia eta beharrezkoa iruditzen zaigu eta hori egiteko helburua ere goresgarria iruditzen zaigu elikadura orekatua emateko zein harreman sozialak erraztezko. Baina ohar edo iradokizun gisa islatzea gustatuko litzaigukeen gauza batzuk daude:

- o Hasieratik, proiektua aurrera eraman ahal izateko, batzordea zein bilkurako taldeak kontuan hartu izana gustatuko zitzaigukeen.

- o Zerbitzu horren benetako beharrak, kostuak eta ekarriko dituen gastuak landu ahal izateko hasierako azterketa egin beharko zatekeela uste dugu.

- o Tarifen baremoak ezartzeko erreferentzia gisa pentsioan oinarritzeak bidegabeko egoerak eragin ditzake. Horretarako zailtasunak daudela badakigun aurren, bidezkoagoa irudituko litzaiguke errenta-aitorpena beiratzea.

* <u>Del Amo Castro jaunak (EH Bildu)</u>: Guri ere proiektua interesgarria iruditzen zaigu eta beharrezkoa planteatzen diren helburuetarako; alde batetik, pertsona nagusien autonomia ziurtatzeko, eta bestetik, zerbitzu sozialak ezagutzeko. Guk hiru gogoeta planteatu nahi ditugu honen inguruan:

lios, y por ello, este servicio cumple con dos objetivos:

- ✓ Por un lado, el ofrecer unas comidas equilibradas a la población mayor y acorde a los ingresos que tiene cada uno.

- ✓ Por otro lado, también queremos favorecer las relaciones sociales y la convivencia.

En definitiva, lo que queremos es mejorar la calidad de vida de las personas mayores. El servicio, en principio, va a ser para personas mayores de 75 años. Queremos ver, una vez de que empiece a funcionar, qué modificaciones se le puede hacer.

* Concejala <u>Sra. Perera Figueredo (Herriaren Eskubidea)</u>: Nos parece un proyecto adecuado y necesario para este grupo de edad, y el objetivo con el que se hace nos parece loable, tanto para proporcionarles una alimentación equilibrada, como para facilitar las relaciones sociales. Hay unas cosas que nos gustaría reflejar como observaciones o sugerencias:

- o Nos hubiera gustado que se hubiera contado desde el principio, tanto como con la comisión, como con las formaciones del pleno para poder llevar adelante el proyecto.

- o Echamos de menos en su realización un estudio inicial de las necesidades reales de este servicio, así como los costes y los gastos que va a suponer.

- o El fijarnos en la pensión como referencia para establecer los baremos de las tarifas puede dar lugar a situaciones injustas. A pesar de que conocemos las dificultades para ello, nos parecería más justo que se mirara la declaración de la renta.

* Concejal <u>Sr. Del Amo Castro (EH Bildu)</u>: A nosotros también nos parece un proyecto interesante, y creemos que es necesario para los objetivos que se plantean; es decir, por un lado, garantizar la autonomía de las personas mayores, y por otro lado, conocer los Servicios Sociales. Queremos plantear tres reflexiones de este tema:

- Ondo dago ekimena, baina hobeto legoke kokatuta zerbitzu sozialen inguruko gogoeta orokor baten barruan; hau da, zeintzuk diren beharrak, zeintzuk aukerak eta hori dena kontuan hartuta erabaki zer egin eta zelan. Batez ere, erradiografia orokor bat izateko nahiz eta egokia izan.

- Ondo dago pentsioarena irizpide moduan; errazagoa da tramiteak egiteko, baina iruditzen zaigu askoz justuagoa dela deklarazioarena.

- Ondo dago kateringarena, baina eskualde honetan, eskolen inguruan, badago mugimendu bat eta guraso batzuek eskatzen dute gogoeta bat egitea jaten denaren inguruan, eta tokiko elikadura eta naturala bultzatzeko eskoletan sukaldatzea. Honen inguruan guk ere gogoeta bat eskatzen dugu, ondo dago kateringarekin hastea, baina ondo legoke aztertzea proiektu orokor eta integral bat eskoletan dagoen aldarrikapen horrekin bat egingo duena.

* 5. Alkate Ordea **Diaz Basterra andreak (EAJ/PNV)**: Gure aldeko bozka izango du. Proiektu ona da Durangorentzat, ez bakarrik pertsona talde baten elikadura bermatuko duelako, baizik eta beraien arteko harremanak ere bermatzen dituelako.

* 1. Alkate Ordea **Rios Ramos andreak PSE-EE (PSOE)**: Lehenengo eta behin, eskerrak eman nahi dizkiegu Argiñe Larreategi eta María Villar Jimenez teknikariei; izan ere, haiek izan dira jangela abian jartzeaz arduratu direnak. Bestalde, Batzordeari eskerrak eman nahi dizkiogu bete duen rola dela eta; izan ere, hasieratik ados egon da proiektuarekin. Esan beharrekoa da oraindik aldaketak egin edo hobekuntzak txerta daitezkeela; guztiak entzuteko prest gaude. Bilkuran aipatu diren gauzez hitz egin behar dut pixka bat.

Alde batetik, ez dute oso argi ikusi pentsioa eskatzearena. Buelta asko eman diogu zer eskatu beharko litzatekeen gaiari: pentsioa edo errenta-aitorpena. Errenta-aitorpenak aparteko lana eskatzen zuela eta hori gure gain ezin genuela hartu erabaki genuen. Egia esan, hori gure gain hartzeko ahalegina egin dugu, baina ezinezkoa izan da.

- La iniciativa está bien, pero estaría aún mejor dentro de una reflexión general sobre los Servicios Sociales, a saber: cuáles son las necesidades y cuáles son las opciones. Y teniendo en cuenta todo eso, decidir qué hacer y cómo hacerlo. Sobre todo, para disponer de una radiografía general, aunque el proyecto sea apropiado.

- Como criterio, está bien tener en cuenta las pensiones; es más fácil para hacer los trámites, pero nos parece mucho más justo lo de la declaración.

- Lo del servicio de *catering* está bien, pero en esta comarca existe cierto movimiento en torno a los centros escolares, y algunos padres y madres solicitan que se reflexione sobre lo que se come, y que se cocine en los centros para impulsar la alimentación local y natural. Pedimos que se reflexione sobre ello también en este ámbito; está bien empezar con un servicio de *catering*, pero sería apropiado que se realizase un análisis general e integral que coincida con la reivindicación que se está haciendo en los centros escolares.

* 5ª Tnte. de Alcalde **Sra. Diaz Basterra (EAJ/PNV)**: Nosotros votaremos a favor. Es un buen proyecto para Durango, no solo porque garantizará la alimentación de un grupo concreto de personas, sino porque también asegurará las relaciones entre ellas.

* 1ª Tnte. de Alcalde **Sra. Rios Ramos PSE-EE (PSOE)**: En primer lugar, agradecer a las técnicas Argiñe Larreategi y María Villar Jimenez que han sido las personas que se han encargado de poner en marcha el comedor. Por otro lado, agradecer a la comisión el papel que ha llevado, que desde el primer momento ha estado de acuerdo con el proyecto. Tengo que decir que todavía se pueden hacer cambios o aportar mejoras, estamos abiertos a todo. Voy a hablar un poco de las cosas que se han mencionados en el pleno.

Por un lado, no se ve muy claro pedir la pensión. Le hemos dado bastantes vueltas al qué pedir, si la pensión o la declaración de la renta. Se ha decidido que la declaración de la renta supone un trabajo extra que no podíamos asumir y verdaderamente se ha hecho el esfuerzo de asumirlo pero ha sido imposible.

Bigarrenik, gizarte-zerbitzuen inguruko gogoeta orokorra. Gizarte-zerbitzu onak ditugula uste dut; baina hobetzen eta behar berriak estaltzen joan behar dute. Daukagunaz jabetzen gara; are gehiago: azken batzordean aipatu genuen beste maila bateko elkarrizketa izan beharko genukeela. Nire ustez, zentzu horretan, batzordea oso inplikatuta dago eta asko kezkatzen gaitu gaiak.

Benetako kostuei dagokienez gaur egun oraindik horiek eztabaidatzen aritu gara, baina ezin dugu benetako kostua izan gaia amaitu eta funtzionatzen hasi arte. Inbertsio handiak egin behar izan ditugu; izan ere, ezerezetik hasi gara.

* **Perera Figueredo andreak (Herriaren Eskubidea)**: Egia da proiektua ondo dagoela eta oso polita dela, baina, agian, guztiok hasiera-hasieratik partekatu izan bagenu, zertxobait handiagoa eta egituratuago dagoena partekatuko genukeen eta baliteke beste era batera planteatu izana ere. Erreferentziazko puntu gisa errenta-aitorpena izateak dituen zailtasun teknikoak ezagutzen ditugu, baina interesgarria da eztabaida hau egin ahal izatea eta esatea beharrezkoa dela iruditzen zait.

* **Del Amo Castro jaunak (EH Bildu)**: Guk gure babesa adierazi genion proiektuari, horren inguruko gogoetak egin ditugu, eta uste dugu hobetu daitekeela eta modu zabalago batean planteatu. Proiektua babesten jarraituko dugu, baina pentsatzen dugu planteatu ditugun gogoetak kontuan hartu behar direla eta bigarren fase batean edo, gauza hobeak egin daitezkeela eta beste osotasun bat eman proiektuari, beste ekimen batzuekin lotu daitekeela proiektua. Beraz, babestuko dugu, baina mantentzen ditugu planteatu ditugun hiru gogoeta nagusi horiek.

Eztabaida amaitu ondoren, Presidenteak gaia bozkatzea proposatu du. Emaitza hauxe:

- Aldeko botoak: HOGEI, 8 Eusko Alderdi Jeltzalea, 7 Euskal Herria Bildu, 3 Herriaren Eskubidea eta 2 Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra.

En segundo lugar, la reflexión general de los servicios sociales. Creo que tenemos unos buenos servicios sociales, pero que tienen que ir mejorando y cubriendo nuevas necesidades. Somos conscientes de lo que tenemos, es más, en la última comisión hablamos de tener un debate a otro nivel. Yo creo que en ese sentido toda la comisión está muy implicada y nos preocupa mucho.

En cuanto a los costes reales, hoy todavía los estábamos debatiendo, pero no podemos tener un coste real hasta que finiquitemos y empecemos a funcionar; hemos tenido que hacer unas inversiones importantes, partíamos de la nada.

* Concejala **Sra. Perera Figueredo (Herriaren Eskubidea)**: Es cierto que el proyecto está bien y que es muy bonito, pero a lo mejor si lo hubiéramos compartido todos desde el principio, hubiéramos compartido algo un poco más grande, más estructurado y hubiera podido ser planteado de una manera diferente. Conocemos las dificultades técnicas para poder tener como punto de referencia la declaración de la renta, pero es interesante poder hacer el debate y creo que es necesario decirlo.

* Concejal **Sr. Del Amo Castro (EH Bildu)**: Nosotros también expresamos nuestro apoyo al proyecto, hemos reflexionado sobre ello y creemos que puede mejorarse y que se puede plantear de una forma más amplia. Continuaremos apoyando el proyecto, pero opinamos que deben tenerse en consideración las reflexiones que planteamos, y que en una segunda fase las cosas podrían mejorarse y dotar al proyecto de otra globalidad; es decir, que podría vincularse con otras iniciativas. Por tanto, vamos a apoyarlo, pero mantenemos las tres reflexiones principales que hemos planteado.

Finalizado el debate, la Presidencia somete el asunto a votación, obteniéndose el siguiente resultado:

- Votos a favor: VEINTE, 8 del Partido Nacionalista Vasco, 7 de Euskal Herria Bildu, 3 de Herriaren Eskubidea y 2 del Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra.

- Kontrako botoak: BAT ERE EZ.
- Abstentzioak: BAT, 1 Alderdi Popularra.

Hortaz,

UDALEKO OSOKO BILKURAK, gehiengoaren botoekin, hauxe erabaki du:

Lehenengoa.- Pertsona Nagusientzako Jantoki Zerbitzuko Prezio Publikoak onestea, goian aipatzen den moduan.

Bigarrena.- Honako Prezio Publikoa, bertako Zerbitzu eta jardueretakoak, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denean sartuko da indarrean.

Hori guztia abenduaren 16ko 9/2005 Toki Ogasunei buruzko Foru Arauko 50. artikuluak ezarritakoarekin bat etorrita.

- Votos en contra: NINGUNO.
- Abstenciones: UNA, 1 del Partido Popular.

En consecuencia,

EL AYUNTAMIENTO PLENO, por mayoría, acuerda:

Primero.- Aprobar el Precio Público por la prestación del Servicio de Comedor para personas mayores, según el detalle anteriormente transcrito.

Segundo.- El Precio Público por la prestación del servicio al que el presente Acuerdo se refiere, entrará en vigor a partir de su publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia.

Todo ello de conformidad con lo dispuesto en el Artículo 50 de la Norma Foral 9/2005, de 16 de Diciembre, de Haciendas Locales.

**LAU.- UDALTZAINGOA HUTSIK DAUDEN SEGURTASUN AGENTE 4 LANPOSTUAK BETETZEKO ESKAERA. (OGASUNA, PERTSONALA ETA UDALTZAINGOA BATZORDEAREN IRIZPENA DUENA 2016KO IRAILAREN 21EKOA).**

Ogasuna, Pertsonala eta Udaltzaingoa Batzordearen 2016ko irailaren 21ekoa, irizpenaren berri ematen da:

*"Pertsonal buruaren txostenean honako hau esaten da:*

*Udaltzaingoaren plantilan herritarren segurtasuneko 4 agente lanpostu daude hutsik.*

*Ikusita plaza horiek aldi baterako izendapen bidez beteta daudela une honetan, beharrezkoa da lanpostu horiek behin betiko betetzea. Horretarako, ezinbestekoa da plaza horiek 2016ko lan-eskaintza publikoan sartzea.*

**CUATRO.- SOLICITUD DE REPOSICIÓN DE LAS 4 PLAZAS DE AGENTE DE SEGURIDAD CIUDADANA DE LA POLICÍA MUNICIPAL QUE ESTÁN VACANTES. (DICTAMINADO POR LA COMISIÓN INFORMATIVA DE HACIENDA, PERSONAL Y POLICÍA MUNICIPAL DE 21 DE SEPTIEMBRE DE 2016).**

*Dada lectura al dictamen emitido por la Comisión Informativa de Hacienda, Personal y Policía Municipal, en sesión de 21 de Septiembre de 2016, del tenor siguiente:*

*"Leido el informe emitido por la Responsable de Personal en el que se indica que:*

*En la plantilla de la PM permanecen vacantes 4 plazas de agente de seguridad ciudadana.*

*Visto que dichas plazas están ocupadas en la actualidad por agentes con nombramiento interino, se considera necesaria pasar a cubrir las mismas de manera permanente. Para ello, las plazas deberán incluirse en la OPE 2016.*

*Kontuan izanda, urriaren 29ako, Estatuko aurrekontu orokorretarako 48/2015 legearen 20. artikuluak ezartzen duena 2016. urterako, hau da, herri administrazioaren udaltzaingoaren lan eskaintza publikoan edo lanpostuak hornitzeko beste edozein kudeaketa tresnatan, erreposizio-tasa, %100 arte helduko da.*

*Erakundeak (Udalak) akordioa hartu behar du osoko bilkuran, edo eskumena duen bestelako organo baten, hutsik dauden lanpostuak betetzeko. Halaber, akordioak argi utzi behar du neurri honekin ez dela aurrekontu-egonkortasunaren helburua arriskuan jartzean. Paragrafo horretan esaten dena Ogasun eta Herri Administrazioen Ministerioaren aurrean egiaztatu behar du toki erakundeak, betiere, lanpostuen deialdia onartu baino lehen.*

*Kontu-hartzailearen txostenean esaten da herritarren segurtasuneko aipatutako 4 lanpostuak Durangoko Udalean indarrean dagoen lanpostuen zerrendan agertzen direla, eta hortaz, dagokion aurrekontu-kredituarekin hornituta daude.*

*Presidenteak honakoa bozkatzea proposatu du: Udaltzaingoaren herritarren segurtasun 4 agente lanpostu betetzea. Emaitza hauxe:*

- *ALDEKO BOTOAK: 4, EAJ-PNV (2), SQ-2D (1) eta PSE-EE (PSOE) (1).*
- *KONTRAKO BOTOAK: 0.*
- *ABSTENTZIOAK: 2, EH Bildu (2).*

*Hortaz, Udaltzaingoan hutsik dauden herritarren segurtasuneko 4 agente lanpostu hornitzearen aldeko irizpena igortzen zaio Udaleko osoko bilkurari. Halaber, jakinarazten zaio neurri honekin ez dela arriskutan jartzean aurrekontuaren egonkortasuna.*

*Osoko bilkuraren akordioa Ogasun eta Herri Administrazioen Ministerioari igorriko zaio.*"

*Considerando que la Ley 48/2015, de 29 de octubre, de Presupuestos Generales del Estado para el año 2016 establece en su artículo 20, Oferta de Empleo Público u otro instrumento similar de gestión de la provisión de necesidades de personal y en el ámbito de la Administración Local al personal de la Policía Local, la tasa de reposición se fijará hasta un máximo del 100 por ciento.*

*En el caso anterior la Entidad (Ayuntamiento) deberá adoptar un Acuerdo del Pleno u órgano competente en el que se solicite la reposición de las plazas vacantes y en el que se ponga de manifiesto que aplicando esta medida no se pone en riesgo el cumplimiento del objetivo de estabilidad presupuestaria. Lo indicado en el presente párrafo deberá ser acreditado por la correspondiente Entidad Local ante el Ministerio de Hacienda y Administraciones Públicas, previamente a la aprobación de la convocatoria de plazas.*

*Visto así mismo el informe de la Interventora, en el que se indica que las 4 plazas de agentes de seguridad ciudadana a cubrir, se encuentran dentro de la relación de puestos de trabajo vigente en el Ayuntamiento de Durango, estando dotadas por lo tanto del crédito presupuesto correspondiente.*

*El Presidente somete a votación la propuesta de cubrir las plazas 4 plazas vacantes existentes de agentes de seguridad ciudadana de la Policía Municipal, dando el siguiente resultado:*

- *VOTOS A FAVOR: 4, EAJ-PNV (2), SQ-2D (1) y PSE-EE (PSOE) (1).*
- *VOTOS EN CONTRA: 0.*
- *ABSTENCIONES: 2, EH Bildu (2).*

*La Comisión eleva al Pleno de la Corporación dictamen favorable de la Adopción de acuerdo en el que se solicite la reposición de las 4 plazas vacantes de Agente de Seguridad Ciudadana en el que se ponga de manifiesto que aplicando esta medida no se pone en riesgo el cumplimiento del objetivo de estabilidad presupuestaria.*

*Remitir el acuerdo plenario al Ministerio de Hacienda y Administraciones Públicas."*

EZTABAIDA-TARTEA ireki ostean, honako parte-hartzeak ematen dira:

ABIERTO debate, se producen las siguientes intervenciones:

